

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

2016ko OHZren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2016ko urriaren 13tik aurrera kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, honako hauen 2016ko ordainagiriak:

– Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

1. ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko epea: 2016ko urriaren 13tik abenduaren 16ra.

B) Betearazte aldia, ehuneko hogeira arteko errekaruarekin: 2016ko abenduaren 17tik aurrera betearazte aldiko errekaruak, premiamendu murriztukoak eta arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

A) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei gogorarazten zaie banku helbideratzeen altak edo aldaketak udaletxean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2016ko abenduaren 12an kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainagiriak: zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2016ko irailaren 27a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO